

Inaxio Begiristain Bekaren oinarriak

Intxurre Elkarteak **Inaxio Begiristain Beka** sortu berri du. Hau dela eta, beka deialdia zabaltzera goaz sormen lanak sustatu eta laguntzeko asmoz, ondorengo **oinarrien** arabera:

1. Deialdi honetara, Inaxio Begiristainen balioak transmitituko dituen lanak aurkeztu daitezke. Hau da, euskara, antzerkia, txistularitza edota kulturaren inguruan oinarrituriko lanak (literatura, abesti, antzerki edo antzeko edozein ideia onartuko da), jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, beste inondik moldatu gabeak eta aurretik saririk jaso edo argitaratu ez direnak.

Epaimahai kideek hurrengo irizpideak kontutan izango dute:

- Lanaren kalitatea. Originaltasuna, erakargarritasuna.
- Gaiaren interesa. Herri, Alegia, mailako interes soziala, orokorragoa...
- Egingarritasuna. Erabiltzeko modukoa izatea.
- Generoa, berdintasuna, giza-baloreak.

2. Parte hartzaile bakoitzak, ondorengoak aurkeztu behar ditu:

a) Egin nahi duen lanaren azalpena, 2-5 orri bitartekoa, egoki irizitako ezaugarriak zehaztuz.

b) Lanaren lagina edo erakusgarria, 1-2 orrikoak. Ahozko lanentzako bestelako euskarriak onartuko dira.

c) Beste orri batean egilearen izen-abizenak, helbidea, posta elektronikoa, telefonoa eta nortasun agiriaren kopia eskaneatua. (Egileei buruzko informazioa Elkarteak gordeko du erabakia hartu arte, eta epaimahaikoek ez dute jakingo haien berri).

3. Proiektuak, 2024ko martxoaren 10era arte bidal daitezke helbide hauetako batera: inaxiobegiristainbeka@gmail.com

Inaxio Begiristain Beka.

Intxurre Elkarteak.

Bideberrieta 11.

Alegia 20260

4. Jasotako proiektu guztiak **Intxurre Elkarteak** osatutako epaimahai batek aztertuko ditu eta erabakiko du haien artean zein den irabazlea.

Epaimahaia honako lagunek osatuko dute:

- Amaia Goikoetxea
- Iker Iriarte
- Felix Irazustabarrena
- Mila Begiristain
- Ibon Azpilikueta (idazkaria)

5. Beka 1.200 €koa izango da eta **Intxurre Elkarteak** ordainduko dio irabazleari era honetara: bekaren diru-kopuruaren erdia, irabazle izendatu ondoren, eta beste erdia, lana amaitu eta entregatu ondoren, epaimahaikoek onespena jasotakoan.

6. Beka-deialdi honetan parte hartzeak bertako oinarriak ontzat ematea dakar. Horien ulermenean zalantzarik balego, antolatzaileari dagokio erabakitzea. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela pentsatzen badu epaimahaiak, hutsean uztea erabaki daiteke.

7. Antolakuntzak eskumena izango du, egile-eskubideen kalterik gabe, bere kontura edo argitaletxe batekin egindako hitzarmenaren bidez, egoki deritzon beste argitalpen egiteko edo zabalkunde lana egiteko.

Argibide gehiagorako: **Intxurre Elkartean**, *inaxiobegiristainbeka@gmail.com*

** Orrialdearen neurri estandarra 1.800 karakterekoa izango da.*